# Laneki buletin@

jakinbai.eus
hezirau.eus
lhdualaeuskaraz.eus
943 376 532
jakinbai@jakinbai.eus

LNKi 2024/ 1. buletin@ URTARRILA

## MATERIAL BERRIAK

### jakinbai.eus web atarian argitaratu dira material berriak

#### Telebista-zirkuitu itxia

Segurtasunaren arloko profesionalen prestakuntza-beharrak betetzeko, badira hainbat argitalpen monografiko (jarraibideak, arau teknikoak eta abar); baina gehien-gehienak ez daude euskaraz. Oso nabaria da, gainera, arlo hori berariaz lantzeko ikasmaterialen falta. Argitalpen honek laguntza ematen die segurtasunaren sektorean sartu nahi duten ikasleei, abiapuntu bat izan dezaten arlo horretan prestatzeko eta oinarrizko ezagutzak eskuratu ditzaten sektoreko langile gisa hautatuak izateko. Lana egiteko, segurtasun-instalazioetarako bi erregelamendu nagusiak hartu dira oinarri gisa: Segurtasun Pribatuko Erregelamendua eta Suteen Aurkako Babeserako Instalazioen Erregelamendua.

Jakinbai Laneki — 2024/01/19

OINARRIZKO EDUKIA

#### CAM : Ordenagailu bidezko mekanizazioa

Lanbide Heziketako Fabrikazio Mekanikoko Produkzioa programatzeko Goi-mailako heziketa-zikloko ikasleei zuzendutako materiala da, hain zuzen ere, ordenagailuz landutako fabrikazioa (CAM) erabiltzen ikasteko materiala.

Jakinbai Laneki — 2024/01/19

OINARRIZKO EDUKIA

#### Zootekniaren oinarriak

Nekazaritza eta abeltzaintza ekoizpena erdi-mailako heziketa zikloko Zootekniaren oinarriak moduluko apunteak egokitu eta euskaratu dira.

Jakinbai Laneki — 2024/01/19

OINARRIZKO EDUKIA

#### EPLAN. Hezkuntza 2023. Proiektu bat sortzeko liburua

Ikasleek Eplan softwarearen lehen pausuak emateko gida. Erronketan lan egiteko material eskuragarria. Eskuliburu hau Gida EPLANeko "EPLAN Educacional 2023" (EPLAN Hezkuntza 2023) bertsio berriztuan oinarrituta dago. Eskuliburu honekin hutsetik hasitako proiektu bat garatzea da helburua, baita bertsio berrira egokitzea ere. Edukia pixkanaka eta era logikoan azaltzen da zortzi ataletan, softwarearen lan-espaziotik hasita eta proiektuaren ebaluazioetan amaituta. 1., 2. eta 3. ataletan proiektuaren hastapenak azaltzen dira: lan-eremua nola prestatu, proiektu bat sortzen hasteko zer egin eta euskarri-orriak zelan eratu. 4. atala gidaren zatirik handiena dela esan daiteke. Hiru erronka proposatzen dira eta horietako bakoitzean elementuak eskemetan txertatzeko modu desberdinak azaltzen dira -sinboloen, makroen edo artikuluen arabera-, eta horietako bakoitza aukeratzeak zer nolako prozesua dakarren. 5. eta 6. atalak programaren baliabideak dira. Baliabide horiek, alde batetik, proiektuaren garapena errazten dute, eta, bestetik, eskemetarako beharrezko dokumentazio gehigarria sortzen dute, hala nola ebaluazioak. Azkenik, beste bi atal daude, 7.a eta 8.a. Lehenengoan, zalantzarik izanez gero laguntza nola eskatu azaltzen da, eta, bigarrenean, EPLAN softwarea nola instalatu

Jakinbai Laneki — 2024/01/19

OINARRIZKO EDUKIA

jakinbai.eus

# Laneki buletin@

LNKi 2024/ 1. buletin@ URTARRILA

jakinbai.eus
heziraul.eus
lhdualaeuskaraz.eus
943 376 532
jakinbai@jakinbai.eus

## MATERIAL BERRIAK

jakinbai.eus web atarian argitaratu dira material berriak







jakinbai.eus

jakinbai.eus
hezirauI.eus
lhdualaeuskaraz.eus
943 376 532
jakinbai@jakinbai.eus

# IVAP-EN TZULTZAILE JURIDIKO-ADMINISTRATIBOA

## Itzultzaile honen abantailak dira: dokumentuak osorik jasotzen ditu eta maketazio berarekin itzulita ematen ditu



‹ IVAP

IZO - Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala

ivap Administrazio Publikoaren Euskal Institutua

IZOko izapideak | Hornitzailearen ataria | Legeak euskaraz

## Itzultzaile juridiko-administratiboa

1. AURKEZPENA
2. LAN PRAKTIKOAK AZTERTZEN
3. KALITATEA
4. JATORRIZKO TESTUA
5. XEDE-TESTUAREN EMAITZA ALDAKORRA DA
6. JOSKERA
7. TERMINOLOGIA
8. ORTOGRAFIA

IVAPek itzultzaile automatiko neuronala egokitu du testu juridiko-administratiboak itzultzeko. Horretarako, IZOk urte askoan euskaraz-gaztelaniaz bildutako segmentu-pareak erabili dira, tresnari irakasteko. Itzultzaileen artean probaldia egin ondoren, iruditu zaigu onuragarri izan litekeela Administrazioko testugintzan laguntzeko, batez ere testu elebidunak sortu behar izaten direnean. Ez da inoiz ahaztu behar tresna hau lanean laguntzeko besterik ez dela, eta bere emaitzak beti berrikusi eta zuzendu behar dituela euskaraz eta gaztelaniaz hizkuntza-gaitasun nahikoa duen pertsona batek. IVAPek ez du erantzukizunik izango tresna hau erabilita sortutako testu akastunek ekar litzaketen ondorio juridikoetan.

› Itzultzaile juridiko-administratiboa

## Informazioa:

- Erabili: IVAP-en itzultzaile juridiko-administratiboa

- Argibideak: bideoa

jakinbai.eus
hezIraul.eus
lhdualaeuskaraz.eus
943 376 532
jakinbai@jakinbai.eus

## LH DUALA EUSKARAZ BIZKAIAN DIRULAGUNTZAK

### 2024an ikasleek enpresa egonaldia euskaraz egiten badute, enpresa horiei diru-laguntzak emango dizkie Bizkaiko Foru Aldundiak

BIZKAIKO ALDIZKARI OFIZIALA **BAO**

246. zk. 2023, abenduak 27. Asteazkena 1. orr.

I. ATALA

**BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA**

**Bizkaiko Foru Aldundia**

**Euskara, Kultura eta Kirol Saila**

**Bizkaiko Foru Aldundiaren 204/2023 FORU DEKRETUA, abenduaren 21ekoa, dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak eta deialdia onartzen dituena. Dirulaguntza horiek emango zaizkie, hain zuzen ere, 2024ko ekitaldian euskararen erabilera sustatzen duten merkataritza-sozietateei, kooperatiba-sozietateei, enpresaburu indibidualei eta profesionalei.**

Informazioa:

- Bizkaiko Foru Aldundiaren diru-laguntzaren deialdia eta argibideak

- Eskabideak aurkezteko epea **2024ko martxoaren 15eko 13:30ean amaituko da.**

# Laneki buletin@



jakinbai.eus
hezirau l.eus
lhdualaeuskaraz.eus
943 376 532
jakinbai@jakinbai.eus

## ASEBETETZE INKESTA

*jakinbai.eus* web ataria hobetzen lagunduko diguzu?

Erantzun GALDETEGIA




Mila esker!

Esker anitz!

Eskerrik anitz!

Eskerrik asko!

Milesker

Esker mila!